

Ezkoneko-ren lehentasuna bezeroak dira. Elkartasuna eta batasuna bilatzen dugu eta bai bikoteari baita beraien gonbidatuei esperientzia ahaztezinena eskaini nahi diegu elkarrekin une zoriontsu bat pasa eta gogora dezaten. Aldi berean, gure planeta zaindu eta babestu nahi dugu, horregatik ezkontza bereziak antolatzen ditugu, jasangarriak direnak, ingurumenean ahalik eta inpaktu negatibo gutxien eragingo dutenak. Gure ezkontzek gaur egungo ezkontza ez jasangarriek sortzen duten kutsadura ekidituko dute, kontutan hartzen ditugun zenbait alderdi direla eta. Adibidez, bezeroek eta gonbidatuek ezkontzara ailegatzeko erabilitako garraioak sortzen duen poluzioa gutxitzea bilatzen dugu beste garraio mota bat erabiltzearen bitartez, autobus elektrikoak, alegia. Eskeintzen diren jaki guztiak ekologikoak izango dira, hau da, zapore gehiago dute eta osasuntsuagoak dira ez dituztekako produktu ez naturalak erabiltzen hauek zaintzeko, ingurunea errespetatzen dute, kalitate gehiago aurkezten dute, kutsadura ekiditzen dute eta landa eremuen garapenean laguntzen dute. Gainera 0 km- aren aldekoak gara, eta horregatik, bertako produktuak kontsumituko ditugu, gertukoak eta ekoizle txikiei erositakoak. Ez dugu plastikoa daraman ezer eskeiniko eta eskeinitako guztia birziklatutako bilgarrietan joango da. Ospakizunaren eremu eta aretoa, elementu naturalez osatutako apaingarriekin atonduko dugu, baina beti ere eredu minimalista bat jarraituz, ahalik eta hondakin gutxien sorrarazteko. Sortutako hondakin gutxi horiek behar bezala birziklatzeko ontziak egongo dira, izan ere, ezkontzaren eguna ere eredugarri izan dadila ezinbestekotzat jotzen dugu. Baina horrekin ez da nahikoa, gure bikoteen bizitzaren gainontzeko egunek ere praktika jasangarrietan oinarritzea nahi dugu, horregatik kontzientziazio ikastaro eta hitzaldiak eskeintzen ditugu; baita ere praktika jasangarrien gida bat ere. Izan ere, ezkontzarekin batera bizimodu berri bat eraiki nahi dugu. Gurekin ezkontzen diren bikoteek ekologia eta naturarekiko duten pasioa areagotzea dugu helburu eta, beraz, bai beraiei baita haien gonbidatuei natura errespetatzen erakustea eta transmititzea nahi dugu kurtsoekin. Ikastaro motzak dira, baina, oso dinamiko eta praktikoa, natura errespetatzearen garrantzia erakusten dutenak, aholkuz eta praktika jasangarriez beteak. Bikoteak nahi duen data aukeratu dezake kurtsoa egiteko. Gonbidatuek ere ikastaroan parte hartu dezakete. Praktika on eta jasangarrien gida ere nahi dutenean eskuratu dezake. Hau online formatuan eskeiniko zaie, paperaren erabilera gutxitzeko asmoz. Era digital batean egiten ez duguna dira gure gidak, paper birziklatuz eginda daudelako. Gida hauek ohitura jasangarriak azaltzen dituzte gure bezero eta haien gonbidatuek informatuta egon dezaten, eta, gainera, haien etxera eramanez ahal dute ohitura horiek praktikan jartzeko asmoz eta munduaren hobekuntzan haien hondar alea jarri ahal izateko.